LESAKAko
KULTURAREN

LIBURU XURIA

Sarrera

Kultura Lesakan
Lesakan, 2021eko urrian

Irakurle, aitzinean duzun dokumentu hau Lesakako liburu xuria duzu. Ez da ipuin bat; errealitate bat deskribatzen du, hain zuzen ere, gure herri ttikiak kulturgintzan duen aberastasunarena. Gurea, guretzat eta zuretzat, bai bertakoak bai kanpokoak hura ezagutzea baita helburua.

Batzuetan beharrezkoa da gelditu eta inguruari begiratzea, hura sentitzea, dagoenaz eta dugunaz konturatzeko. Ildo horretan, herriko kultur eragileen ezaugarriak, proposamenak, ohiturak eta kontaktuak biltzen saiatu gara hurrengo orrietan.

Soinulariak, trikitixak, antzerki taldeak, dantzariak, bertsolariak, kantariak, musika banda, elkarteak… Ohartuko zara zenbat talde desberdin ditugun gurean antolatzen eta emanaldiak egiten, adin guzietako herrikideez osatuak. Doinua, ahotsa, hitza, mugimendua. Denetik denentzat.

Denok osatzen dugu kultura komunitatea: sortzaileek, eragileek, hartzaileek, komunikabideek, babesleek… Eta norberaren osasunerako onuragarria dela ez dugu dudarik. Bakoitzak barrenean duena espresatzeko modua delako sormena. Duen onena eskaintzekoa. Nor ez da ongi sentitzen musika egiten, kantuan, dantzan, edo antzezten?

Liburu hau herritar guzientzat sortua dago, noski. Kulturgintzan hartzailearen (ikuslearen, entzulearen) garrantzia azpimarratu nahi dugu. Herrian izaten diren emanaldietara agertzera animatu nahi zaitugu. Oholtzan dagoenak zerbait ederra du emateko beti, bere asmo onenarekin. Baina parean beharrezkoa du eskaintza jaso nahi duen jendea. Emanaldia, han dauden guziek osatzen dute: publikoak, artistak, teknikariak. Une horretan gertatzen da bakarrik, eta errepikaezina da. Altxorra da hori bizitzea.

Kulturgintza hala delako, dokumentu hau bizia izanen da. Hortaz, paperean ezezik sarean ere aurki dezakezu, behar denean eguneratua.

Ipuina ez den arren…

Aurkibidea

or.

- **Arkupe Pilota Elkartea** 7
- **Lesakako Gure Arrano Elkartea** 11
- **Beti Gazte K.J.K.E.** 15
- **Bortzirietako Bertso Eskola** 19
- **Bortzirietako Gorriak** 23
- **Elutxa Txaranga** 27
- **Lesakako Erraldoien, buruhandien eta gaitarien konpartsa** 29
- **Giltzarri Abesbatza** 31
- **Irain Eskola Publikoa** 33
- **Led Silhouette** 37
- **Lesaka Trikitixa Taldea Elkartea** 39
- **Lesakako Abesbatza** 43
- **Lesakako Musika Banda** 47
- **Lesakako Soinulari Taldea** 51
- **Lesakako Txistulari Taldea** 55
- **Mairu Antzerki Tailerra** 59
- **Lesakako Jubilatuen eta Pentsionisten Elkartea** 63
- **Tantirumairu Euskal Folklore Taldea** 67
- **Tantirumairu Kultur Elkartea** 71
- **Txamukos Mariatxia** 75
- **HuriH** 79

Arkupe Pilota Elkartea

Gure historia: Pilota Euskal Herriko nortasunari lotuta dagoen kirola da. Pilotari bakoitzaren esku zakar eta zabalen gibelean, gure herrietako historiaren zati bat dago. Herri horien artean, Lesaka aurkitzen ahal dugu.

Gure elkartearen izena ARKUPE PILOTA ELKARTEA da. Izen horrek erreferentzia egiten dio gure hiribilduan pilota modalitate desberdinetan jokatzeko erabiltzen zen lehenbiziko lekuari, Herriko Etxeko ARKUPEAri.

Herriko pilotazale talde batek sortu zuen elkartea, 1985ean. Lehenbiziko egoitza Kaminero ostatuaren gibeleko aldean zegoen; gaur egun, berriz, Antoiu Karrikan dago, 13. zenbakian. Nahiz eta, berez, Mendigorriakoa izan, Benito Tainta lehenbiziko lehendakaria izan zen. Albinte zaharra izandakoa eta pilotari ezagunen entrenatzailea herrian hagitz ezaguna zen.

Elkarteak, gaur egun, 120 bat bazkide ditu.



Gure helburua: Elkartea sortu zenetik 34 urte pasatu diren arren, gure xedea eta ilusioa berak dira. Pilotaren bidez kirolaren balioak irakasteak izaten segitzen du gure erronka nagusia. Astean bitan, zenbait haur eta gazte elkartzen dira herriko frontoian, entrenatzaile baten laguntzaz pilotan aritzera.

Irakaskuntza horrek bere fruituak eman ditu, eta, horri esker, profesional aritu dira herritar batzuk, hala nola Inaxio Errandonea, Jose Jabier Taberna, Inaki Larralde eta Jesus Mª Almandoz, eta maila baxuagoan, bertze kuadrilla bat ere ezin dugu aipatu gabe utzi, hala nola Joxe Mª Ubiria, Karlos Irigoien, Salbador Etxepare edota Iker Tainta.

Emakumeek ere izan zuten beren lekua. Igantziarrez eta Lesakarrez osatutako talde bat ezaguna egin zen, eta "Las raquetistas" izengoitia hartu zuten. Baztango Txapelketan parte hartu zuten.

Agenda eta ekimenak: Garrantzitsuena, zalantzarik gabe, San Ferminetako torneoa da. Inguruko txapelketetan ere parte hartzen dugu: Bortzirietako Txapelketan, Baztango Txapelketan, Ola Sagardotegiko Txapelketan… Urrutixeago ere ailegatu izan gara, Lizarrako Txapelketan edota Zizurreko Txapelketan parte hartuz.

Bitxikeria batzuk: Urte anitzetan, elizako eta udaletxeko ARKUPEETAN jokatu izan da. Hortik, hainbat solas gelditu zaizkigu, errate baterako, sotamanoa edo angelusa, igande goizetan une hartan jokatzen baitziren finalak.

Pasaka aritu zen azken herrietako bat izan da Lesaka, herrian 50eko eta 60ko hamarkada arte jokatu baitzen. Ezpata dantzarien kapitainak Zubigainekoa dantzatzen duen zubiko harria da horren adierazgarri.

Harremanetarako: arkupepilotalesaka@gmail.com

Lesakako Gure Arrano Elkartea

Aurrekariak. 80ko hamarkadan Lesakako gazte batzuek euskara, kultura eta politika aldetik egoera zein zen ikusita zerbait egin behar zela pentsatu zuten. Hausnarketa eta eztabaida prozesu baten ondotik, garbi gelditu zen ikuspegi ezkertiar eta abertzale izanen zuen euskal kultur gune sendo eta egituratua beharrezkoa zela herrian.

Horretarako zalantzarik gabe biltzeko leku bat beharrezkoa zen, eta toki bat bilatzeari ekin zion gazte talde ausart hark. Sakela ongi estutuz lortu zuten lehen taldekide haien artean etxea erostea.

Bastagileta. Izen horixe zuen/du erositako etxeak: *bastak egiten dituenaren lekua* edo. Biltokia eskuan izanda taldea zabaltzea zetorren, jende aunitz behar baitzen lanak eta gastuari aurre egiteko.

Barrenean tolare bat zegoen eta etxepetik lehen solairura zihoan harrizko eskailera; biak gorde ziren zeuden bezala.

Elkartea. Egoitza berritu eta hornitu ondotik hurrengo urratsa legeztatzea zenez 1986ko apirilaren 26an, lau laguneko batzorde batek

Fundazio Akta sinatu eta ondoko erabakiak hartu zituen:

1.- *Gure Arrano* Kultur Elkarte Euskalduna eratzea.

2.- Estatutuak egitea.

3.- Funtzionamendu Batzordea eratzea.

Hartutako erabakiak bete ondotik Nafarroako Elkarteen Erregistroan sartu eta legeztatua gelditu zen.

Etxepeko aitzinaldean ostatua egin eta bazkideei eskaini zien baten batek har zezan eta ireki, honela ostatukoarekin batera elkarteko atea ere egun osoan zabalik egon zedin.

Euskara. Fundazio Aktak dion bezala *Gure Arrano* kultur elkarte euskalduna da; hortaz, euskara da ardatz, komunikazio tresna eta eragile nagusia gure elkartearen jardunean.

Kanpo harremanak ere bertze elkarte batzuekin edota erakundeekin gure hizkuntzan egiten eta eskatzen ditugu. Halaber gure hornitzaileekin eta aseguru etxearekin. Hitz batez *euskaraz bizi nahi dugu* eta bizi gara.

Guk gihaurek antolatzen ditugun ekitaldi guztiak euskaraz izaten dira eta hori bera eskatzen diegu gure instalazioak erabiltzen dituztenei, salbuespenak salbuespen, (ad. nazioarteko hitzaldi batean kanpotar batek lekukotza eman behar baldin badu).

Kultura. Kultura da euskararekin batera gure elkartea ezaugarritzen duen bigarren zutabea. Urte hauetan guztietan *Gure Arrano*k herriko kultur biziari egindako ekarpena luzea eta zabala izan da.

Urtero urtero **Sanferminetako bertso saioa** antolatzen dugu eta era berean inauteetako **Zako-zaharren kalejira**.

Aipatutako urteroko bi ekitaldi horiekin batera musika emanaldi aunitz egin dira gure eraikinean.

Musikarekin batera zinemak ere arreta berezia izan du gure elkartean eta film andana proiektatu dira bertan zein herriko etxeko arkupetan.

Hainbertze erakusketa egin dira elkartearen instalazioetan: argazkiak, margolanak, gizarte-ekimenekoak…

Euskal hedabideen sorrera eta bidean ere parte hartu dugu: Egin, Euskaldunon Egunkaria, Gara eta Berria diruz eta animoz lagundu ditugu.

Elkarte irekia. Baina ez da bakarrik bazkide taldeak antolatzen duena elkarte hau ezaugarritzen duena; izan ere, elkarte irekia nahi dugu eta gure instalazioetan hainbat eta hainbat taldek ateak zabal--zabalik izan dituzte eta dituzte euren ekimenak aitzinera eramateko: bertso-eskolak, erakusketak, hitzaldiak, gazte taldeak… denak ongi etorriak dira gurera.

25. urtemuga. 2012 urtean 25 urte bete ziren gure elkartea abian paratu zenetik eta zerbait berezia egin behar zelakoan batzorde bat lanean hasi zen urtebetetze berezi honi zegokion ospakizuna antolatu nahian.

Sukaldaritza lehiaketa izan zen horietako bat eta bikote franko bildu genituen bere gutiziak denen gozamenerako prestatu zituztenak, zenbait hilabetez, egun berezietan bazkideak jantokira erakarriz sukaldaritza lehia interesgarriari bide emanez.

Txondorra ere etorri zen urtemuga berezia edertzera eta hilabete lu-

zez Landazelaietan biztua eduki genuen txondor eder bat, zenbait bolondresi esker gau eta egun martxan edukitzen ahal izan genuena. Azkenik 100 zaku inguru ikatz lortu genituen eta adituen arabera hagitz kalitate onekoak: kristal Ikatza.

Oraina. 2018an abiatutako hausnarketa prozesu baten ondotik, orduarte etxepean edukitako elkartea lehen solairura eramatea erabaki zen. Horrekin batera bazkide berriak biltzeko kanpaina bati hasiera eman zitzaion eta gaur egun ehundik gora bazkide ditu *Gure Arrano*k. Horrekin batera zuzendaritza batzorde zabal eta ilusioz betetakoak hartu du gidaritza iraganean egindakoari segida eman nahian eta bide berriak urratzeko asmotan.

Etorkizuna. Hain iragan zabal eta aberatsa duen elkarte batek etorkizuna ere antzekoa izanen duelakoan gaude: *atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu*. Eta hemendik aitzinera ere *Gure Arrano*k hegaka jarraituko du.

Beti Gazte K.J.K.E.

Lesakako Beti Gazte elkartea 1.300 bazkide inguruk osatutako kirol, jolas eta kultura elkartea da. 1940. urteko abuztuaren 9an sortu zen elkartea, eta, orduz geroztik, Beti Gazte osatu eta biziberritu dugu elkartetik pasatako herritar aunitzek.

Urte guzian zehar egiten diren ekitaldi zein jardueren bitartez kultura eta kirol balioak sustatzea da gure helburua, baita balio horietan oinarritutako hezkuntza ematea ere. Horrez gain, herriari mugimendua eta bizia ematen saiatzen gara. Hori guzia aitzinera eramateko, Herriko Etxearen babesa izaten dugu.

Kirolarekin batean, Kultura dugu elkartearen alderdi nagusia. Urte osoan zehar irauten duten jarduerak zein egun jakinetan antolatutako ekitaldiak izaten ditugu. Hauek dira urtean zehar martxan dauden taldeak eta kultura-ekitaldi nagusiak:

Lerro Dantza Taldea: 2010. urtean sortu zen Beti Gazteko Lerro Dantza Taldea. Hasiera batean, Beti Gazte elkartean biltzen ziren sei emakumek osatzen genuen taldea, eta dantzen oinarrizko pausoak

ikasteko helburua genuen. Gaur egun, berriz, 80 partaidek osatzen dugu taldea eta 20 koreografia ezberdin baino gehiago dakizkigu.

Muxiko Dantza Taldea: 2018an, "BETI JAUZI" dantza ekimena abian paratu genuen, helduei jauzi dantzak erakusteko nahian, baita gaur egun Euskal Herri osoan zabaldu diren herri dantzetako saioetan dantzatzen diren bertze dantza batzuk ere. Entseguak astero egiten ditugu.

Irakurketa Taldea: 2010. urtean sorturiko taldea dugu hau, eta, gaur egun, 26 pertsonak osatzen dugu. Hilero leitzen dugun liburuaren inguruan solas egin eta eztabaidatzeko elkartzen gara. Zineforuma ere antolatzen dugu, baita kultura-irteerak ere.

Beti Gazte Kantari: 2018an sortu zen taldea, kantu zaharrak euskaraz eta gaztelaniaz ikasteko asmoz. Hamabortz egunetik behin egiten ditugu entseguak eta hasiak gara herrian barrena kantari ibiltzen egun zehatz batzuetan.

Ajoarriero Lehiaketa: 1991. urtean egin genuen lehendabiziko aldiz Ajoarriero Lehiaketa, Beti Gaztek 50 urte betetzen zituela aprobetxatuz. Orduz geroztik, urtero antolatzen dugu, Lesakako Ferietako bezpera egunean. Herriko hainbat ostatuk ajoarriero kazolak oparitzen dizkiote klubari lehiaketaren ondotik herritarrei banatzeko.

Margotze Azkarreko Lehiaketa: 2013ko ekainean, Beti Gazte Elkarteak margolari lesakarraren omenezko "ELIAS GARRALDA Margo Azkarreko Lehiaketa" abian paratu zuen lehenbiziko aldiz. Geroztik, ur-

tero antolatzen da ekainaren hasieran, eta, lehiaketa horrekin batean, haurrentzako lehiaketa ere egiten da.

Ipuin lehiaketa: Beti Gazte elkarteak antolatutako lehenbiziko ipuin lehiaketa 1970. urtean izan zen. 2014. urtean, berriz abian paratu genuen ekimen hori Lesakako haur guzientzat, Tantirumairu ikastolaren eta Irain eskolaren laguntzaz. Aurkezten diren ipuinekin, liburuxka bat egiten dugu urtero.

Ezagutu dezagun lesaka: 1989. urtean, Beti Gazte Elkarteak "EZAGUTU DEZAGUN LESAKA" lehiaketa martxan paratu zuen, Tantirumairu ikastolako eta Irain eskolako haur guzientzat. Parte hartzaileek herriarekin zerikusia duten 30 galderari erantzutea dute helburu. Hilabete bat pasatuta, erantzun-orriak biltzen dira eta zuzenketak egiten dira irabazleak nor diren jakiteko.

Argazki lehiaketa: 1991. urtean antolatu genuen lehenbiziko aldiz. Urte batzuetan egin gabe pasatu ondoren, 2010. urtean, berriz hasi ginen jarduera horrekin. Aurkezten diren argazkiekin, erakusketa bat egiten dugu. Urteko azken hiruhilabetealdian gauzatzen da.

Arbolaren eguna: 2014. urtean antolatu genuen lehenbiziko aldiz egun hori. Ekimenak bi egun irauten du: lehenbizikoan, lur eremua garbitu eta prestatu egiten dugu, eta, bigarrenean, landareak landatu. Parte hartzaileei hamaiketakoa ematen zaie. Urteko lehenbiziko hiruhilabetealdian, gauzatzen da ekimen hori, otsail aldera.

Argazki rallya: 2015. urtean antolatu genuen lehenbiziko aldiz lehiaketa hori. Udalerrian barna eta egun zehatz batean erraten den gaiaren inguruan ateri behar dira argazkiak.

Harremanetarako: kultura@betigazte.net

Web orrialdea: WWW.BETIGAZTE.NET

Bortzirietako Bertso Eskola

Aurkezpena:

Laurogeita hamarreko,
efemerideak ketan:
Kuwait-en gerra piztu zen;
urduri Ameriketan,
Thatcher-en dimisioa,
herriaren mesedetan,
Simpsondarrak estreinekoz
telebistako katetan,
Retegi berriz txapeldun
(hau, nola ez,...Anoetan),
Egunkariaren lehen
aleak prentsa-dendetan,
Irunen Negu Gorriak,..
ta udazken hartan bertan,
Azaroan, Bertso eskola
sortu zen Bortzirietan.

25. urteurreneko ospakizunera bildu zen taldea/Bardoen finala Lesakan, bertakoen agurra.

Historia eta ezaugarriak: Bertsoak aipatzen duen bezala 1990ean sortu zen bertso eskola, Manolo Arozenaren eta Bittor Elizagoienen ekimenez. Gaur egun, Bortzirietan, 80 ikasle inguru ditu; horietatik, 50 Lesakan. Urte osoan zehar, haurren, gazteen eta helduen 5 talde elkartzen dira Tantirumairu ikastolan eta Arrano elkartean. Horretaz gain, heldu hasiberrientzat, 15 orduko ikastaroa eskaintzen da.

Izaera eta helburuak: Bertso eskolak bertsolaritzaren ondarea geroratzeko transmisio tresnak dira. Haietan, bertsolaritzaren tradizioan sakondu eta, bertsogintzarekin, sormena lantzen dugu. Gazteek eta helduek bertsotan egiten dute bat-batean, eta, haurrekin eta gaztetxoekin, jolas eta ariketa dinamikoen bitartez, bertsolaritzara hurbiltzen gara: doinuak ikasiz, errimatzearen plazeraz gozatuz, bertso antzerkiak eginez, eta abar.

Bertsolaritzaren bidez, 4 ardatz nagusi lantzen ditugu: kultura, hizkuntza, trebetasun sozialak eta musika. Bertsolaritza, euskal kulturaren adierazle eta hedatzaile aberatsa izan da mendeetan zehar. Hizkuntza lantzeko tresna ludikoa da bertsolaritza; ahozkotasuna jorratzea helburu izanik, euskara umorerako, eztabaidarako, sentimenduak adierazteko, komunikatzeko edota josteta egiteko erabili da, jarrera positiboa sustatuz. Trebetasun sozialei dagokienez, honako hauek aipatzen ahal dira, bertzeak bertze: jendeaitzinean aritzea (solasean, kantuan zein antzezpenetan), norberak egindakoarekin ziur egotea, bertzeen lanak entzuten eta baloratzen ikastea, hausnartzea, bertzeen tokian jartzea, norbere burua ezagutzea, eta taldean lan egiten jakitea. Azkenik, musika ere lantzen da, doinutegia ikastearekin batean, musikalitatea landu eta euskal kantutegiaren transmisioa egiten baita.

Urteroko agenda/ekimenak:

- **Bertso Eskolaren Taldekako Lehiaketa:** 2020ko urtarrilaren 4an egin dugu 21. edizioa. Gabonen inguruan egiten dugun ekitaldi horren bidez, bertso-eskolako egungo kideak zein kide

ohiak elkartzen dira. Lehiaketa izan arren, besta giroko bertso ekitaldi horretan, umorea eta sormena dira nagusi, eta Lesakako eta Berako zenbait lekutan egiten dira saioak. Bertsolariez gain, eskualdeko gai-egile, epaile eta aurkezleak biltzen dituen ekimen aski errotua dugu taldekako lehiaketa.

- **Nafarroako bertsolari txapelketa/ Bardoak:** 2 urtez behin, Nafarroako bertsolari txapelketa izaten da, eta 2 urtez behin, Bardoak taldekako ekimena. Urtero parte hartzen dugu horietan.
- **Bertso saioa Andra Mari Zaharren egoitzan:** Urtero-urtero, zaharren egoitzara joaten gara bertso eskolako kideak bertso saio bat egitera.
- **Bertso otordua:** Euskal Herri mailako bi bertsolarirekin eta gai-jartzaile batekin antolatutako ekimena da. Azken 6-7 urteetan, Basurde elkartean egin izan da gaztaina jate baten inguruan.
- **Topaketak:** Euskal Herri eta Nafarroa mailako topaketetan parte hartzen dute ikasleek, gazteek zein helduek. Horretarako, hainbat ekimen antolatzen dira; Bertso Truk, Bertso Udalekuak, Negulekuak, Bertso Eskolen Egunak…
- **Bertso antzerkiak:** bertso eskolako ikasleentzat motibagarriak dira, eta ikasle ez direnek bertso eskolaren berri izan dezaten erabiltzen dira horrelako saioak. 2020an, Irain ikastetxean eta Tantirumairu ikastolan izan dira saiotxo horiek.
- **San Juan sua:** Lesakako Euskara Batzordeak San Juan bezperan antolatzen duen ekitalditxoan parte hartzen dugu. Egunerako propio asmatutako bertso sorta bat kantatzen dugu talde guzietako partaideek.
- **Sanferminetako saioa:** Lesakan, Sanferminetan, Arrano elkarteak antolatzen duen saioaren antolakuntzan laguntzen dugu. Hala nola, gaiak egin eta aurkeztearen ardura ere Lesaka-

ko helduen taldearena izaten da.

- **Ferietako saioa:** Lesakako Udalaren eskariz, antolakuntza lanak bertso eskolaren esku izaten dira.
- Urtean zehar gurekin harremanetan jartzen dira bertsoaren inguruan eskariak egiteko eta denei erantzuten saiatzen gara.

Harremanetarako: Estitxu Arozena Albizu 618963011 edo bortzibertso@gmail.com

Bortzirietako Gorriak

Bortzirietako Gorriak kultur elkartea eta peña gorritxoa 2007ko abuztuan sortu zen, baina ofizialtasuna urte bereko azaroan lortu zuen, ferien bezperan herrian Osasunako jokalari, zuzendaritzako kide eta familia gorritxoaren partaide ziren bertze hainbat pertsonaiarekin egindako ekitaldi batean.

Peña osasunazale bat sortzea aspaldiko ametsa zen herriko zenbait *gorritxoren* artean, guttti izanik hark babesleku gisa funtzionatuko zuelakoan. Astebururo biltzen ziren Koxkila ostatuan partidak ikustera eta aldiro ateratzen zen peña bat sortzeko ideia, baina ez zen inoiz gauzatzen. Emaitzarik eman zuten pare bat saiakeraren ondotik, 2007ko udan, 15 bat lagun elkartu ziren, eta, Xaruta ostatuan egindako afariaren ondotik, peña sortzea erabaki zen. Han bildutakoen artean, baikorrenak ez zuen 30 bazkide baino gehiago biltzerik espero. Izenaren kontuarekin hainbat tirabira eta xelebrekeria izan ondotik, Bortzirietako Gorriak izena eman zitzaion, Lesakako gorritxoak ez ezik Bortzirietakoak ere biltzeko asmoz.

Urte hauetan, gauza aunitz egiteko aukera izan du: mendi ibilaldiak, bidaiak, entrenamenduak ikustera joateko irteerak, jokalari onenaren saria sortu, sarrerak zozkatu, peñako ezkondu eta ezkongabeen arteko partidak antolatu; Osasunako eta bertze hainbat taldetako peñekin senidetu (Baztango Gorriak, Lizarrako Kate Gorriak, Mezkirizko peña… Errealeko, Mallorkako, Numantziako… peñak), Lesakako Sanferminetako Peñen Eguna antolatu, Osasuna Fundazioak antolatzen duen haurrentzako 3x3 futbol txapelketa ekarri, Bortzirietako mus txapelketa antolatu, Beti Gaztek antolatzen duen ajoarriero txapelketa suspertu…

Gaur egun, 80 bazkide inguru ditu peñak, eta 140 izatera ailegatu zen. 15 egunean behin, bazkideen artean bi abonamendu zozkatzen dira Sadarrera joan ahal izateko. Hilabetean behin biltzen da bortz bazkidez osatutako zuzendaritza taldea (lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina eta batzordekidea), sortzen denari irtenbidea eman, kudeaketa kontuak moldatu eta proposamen berriak aztertzeko. Batzar orokorra otsailean/martxoan egiten da.

Bortzirietako Gorriak Nafarroako elkarteen erregistroan izena emanda dagoen kultur elkarte bat da, modu berezian Osasuna futbol taldeko jarraitzaile bortziriarrak biltzen dituena. Egoitza Koxkila ostatuko lehenengo solairuan du. Beti Osasuna Osasunako peñen federazioko kidea da. Osasunazaleen topagune izatea du helburu; bertzetik, talde gorritxoarekiko afizioa zabaltzea eta, hirugarrengotz, zenbait ekintzaren bidez zaletasun hori sustatzea. Bere izaerak ahalbidetzen duen neurrian, herriko bizitzan agertzen saiatzen da.

Bazkideek ordaintzen duten kuotaz baliatzen da aitzinera egiteko.

Urteroko agenda/ekimenak: Ajoarriero txapelketan parte hartu, Osasunako Peñen Egunean parte hartu, futbol partidak ikustera joateko irteerak antolatu, entrenamenduak ikustera joateko irteerak antolatu eta 3x3 haurren futbol txapelketa antolatu.

Harremanetarako: Egoitz Telletxea Etxepare. 610 007 619

Elutxa Txaranga

Elutxa Txaranga lesakarrez osatutako musika taldea da, helburu bezala musikaren bitartez hazi, hezi eta bizitzea duena.

2014ean hasi genuen gure txaranga eratzearen proiektua eta herriko 11 lagun elkartuz 15-20 urte bitarteko partaideak zituen txaranga sortu genuen. Lau kanta ikasi eta herria astebururen batean alaitzea, afari eder batzuk egitea eta akaso ondoko herriren bateko bestetan jotzeko aukera izatea zen gure helburua; musikarekin bizi eta ikastea.

Denborak gure aldera jokatu zuen eta hilabete batzuetan elkarte bat egiteko erabakia hartu genuen, baita beharrezkoak ziren instrumentuak erostea ere. Horrela, ttipi-ttapa ttipi-ttapa, gaur egun arte ailegatu gara, jende ugarirekin taldea osatuz eta esperientziak zabalduz.

Elutxari esker, bertatik pasa izan garen guztiok esperientzia ikaragarriak bizi izan ditugu, bertze modu batean inoiz bizituko ez genituenak. Euskadi zein Nafarroako hainbat herri ezagutu eta bertako jendearekin musikaz gozatzeko aukera izan dugu, baita talde onekin elkartu eta hauek ezagutzeko aukera ere. Polliki-polliki musika mundua pixka bat ezagutzen joan gara eta denbora berrietara egokitzen.

Guretzat izan dugun onura guzi hori Lesaka herrian zabaltzen dela ere uste dugu, gure txarangak, hein batean, herriko gazteak musikan sartzera animatzen baititu eta mundu horretan sartzeko ateak zabaltzen dizkie. Goi mailako musika ikasketak burutzeko eta talde profesionaletara salto egiteko plataforma dela ere pentsa dezakegu, honi esker taldetik pasatako musikari ugarik lortu baitute talde profesionaletan sartzea edo/eta musika ikasketetan aurrera egitea.

Musikari aunitz pasa izan gara gure taldetik, batez ere lesakarrak, baina baita bertze Bortzirietako zein Gipuzkoako herrietatik etorritakoak ere. Gaur egun 25 bat lagun gara Elutxatik pasa izandakoak eta gure bizitza musikaleko zati bat txaranga honi zor diogunak.

Espero dugu proiektu honek aurrera jarraituko duela, urte batzuez behintzat, eta orain gaudenok noizbait taldea uzten dugunean gibeletik etorriko direnen erreleboa izanen dugula. Zuk ere txaranga mundua gustukoa baduzu, ez izan dudarik, hurbildu Elutxa Txarangara! ;)

Kontakturako: elutxa.txaranga@gmail.com

elutxa
txaranga

Lesakako Erraldoien, buruhandien eta gaitarien konpartsa

Iduri duenez, Lesakako Erraldoiak 1940ko hamarkadaren hasieran ailegatu ziren, Garai gobernuaren opari gisa. Ordutik gaur arte, Sanferminetan atera izan dira batez ere, baina bertze momentu jakin batzuetan ere dantza egin dute. Dakigula, ez da inoiz konpartsa ofizialik izan. Urte hauetan guzietan, boluntarioek dantzatu dituzte erraldoiak eta, iduri duenez, boluntario falta izan zelarik, eskolako eta ikastolako guraso banak dantzatzen zituzten.

2014. urtean izan zen konpartsa ofiziala sortzeko lehenbiziko saiakera, eta zenbait dantzari etorri ziren Tolosatik Lesakako konpartsako kideei lehenbiziko urratsekin laguntzera. Lehenengo konpartsa hartan, Mikel Iriarte, Mikel Biurrarena, Aritz Telletxea, Oier Iantzi, German Deskarga eta Egoitz Telletxea aritu ziren. Dantzariekin batean, gaitariak ere bildu ziren konpartsara: Xabier Maritxalar, Ladis Caballero eta Gaizka Sarasola; Juan Pablo Txoperenak tuba jotzen zuen.

Zenbait arrazoi zirela medio, lehenbiziko konpartsa hura desegin zen, eta Mikel Biurraena, Aritz Telletxea eta Egoitz Telletxea gelditu

ziren dantzari gisa. Jendea animatuz, 2017an, konpartsa suspertzeko ahaleginak egin ziren, eta talde berri bat aurkeztu zen 2018ko bestetara: 12 bat laguneko konpartsa, buruhandiekin eta gaitariekin batean. Ordutik hona, giro ederrean eta arrakasta handiz dabil.

Herria alaitzea da Lesakako Erraldoien, buruhandien eta gaitarien konpartsaren helburua, batez ere haurrei eta adinekoei bestak alaitzea. Hori dela eta, tradizioz eginkatu den uztailaren 6ko saioaz gain, San Fermin bestetako bertze egunetan ere ateratzen da konpartsa, eta taldeko gaitariek dianak egiten dituzte egunero. Bertzeak bertze, erraldoien mundua hurbildu nahi dio konpartsa honek Lesakako herriari, baita gaita musika ere. Orain arte, bertze konpartsa batzuekin senidetzeak egin ditugu eta zenbait erraldoi topaketatan hartu dugu parte. Bide horretan lagun izan ditugu Ezpelur Gaiteroak eta inguruko herrietako bertze erraldoi konpartsak ere. Momentu berezien artean gordetzen dugu Oliteko konpartsarekin egindako senidetzea, han, bertze hainbat erraldoirekin batean, Oliteko jauregian dantzatzeko parada izan baikenuen.

Gure diru iturri bakarra udalak ematen digun laguntza da, eta, hala, anitzetan, gure poltsikotik ordaindu ditugu gure gastuak.

Urteroko agenda. Ekimenak

- Sanferminak
- Bertzelako topaketak eta irteerak
- Konpartsaren eguna

Harremanetarako: Aritz Telletxea Etxepare 606 248 050

Giltzarri Abesbatza

1996an sortu zen, musika koralaz gozatu eta hura ezagutzera emateko. Isabel Lácar Abril lesakarra izan da koruaren antolatzaile eta zuzendaria hasieratik. Lehenbiziko urteetan Bortzirietako jende gaztearekin osatu bazen ere, gaur egun, Abesbatzak 40 bat abeslari biltzen ditu, Baztan-Bidasoakoak nahiz mugaren bertzealdekoak.

Giltzarrik musika errepertorio zabal bat landu du, antzinako musikatik hasi eta gaur egungo konposizioetaraino; guretzat bereziki sortutako obraren bat ere badugu, eta euskal musika, amerikarra nahiz europarra kontuan hartu dira, jakina.

Azken urteetan, gaur egungo konpositoreen lana ezagutzera ematea izan da Giltzarriren helburuetariko bat, beraren betiko errepertorioa alde batera utzi gabe. Gainera, kontzertuak oraindik berexiago egiteko

asmoz, zenbait musikariren laguntza izaten du bere lan batzuetarako. Hala, ohiko pianoaz gain, organoaren, saxofoiaren, klarinetearen, flautaren edo tronpeten soinuak, nahiz ahots bakarlariak aditzen ahal dira ekitaldietan.

Musika heziketa oso garrantzitsua da; hortaz, Giltzarrik ahots teknikaren ikastaroak antolatzen ditu, baita 2 urtetik behin Kantu Idekien zikloak ere; hara, prestigio handiko zuzendariak gonbidatu eta deialdiak zabaldu egiten dira parte hartu nahi duen guzientzat.

Bere aktibitatearekin hasiz geroztik, Giltzarri Abesbatzak kontzertu aunitz antolatu ditu, betiere musika koralarekiko maitasuna zabaltzeko asmoz. Hiru dira ekitaldi nagusiak. Bortzirietako kontzertuan, ekitaldi bat egiten da bortz herrietako batean, urtean behin. Bigarrena Lesakan antolatzen den Abesbatzen Topaketa da. Saio horretan, hiru koru biltzen dira. Kontzertu horiek lan handia eginez sortzen ditu Giltzarrik, leku eta mota desberdinetako taldeak ekartzeko. Azkenik, baina ez horregatik garrantzi guttiagorekin, Haurren Topaketa dugu. Ekitaldi hori egiaz berexia da eta bi helburu nagusi ditu: musika korala haurren artean sustatu eta abesbatzaren etorkizuna ziurtatzea. Bortzirietako ikastetxe guzien laguntzarekin antolatzen da.

Ekitaldi horiez guziez gain, bertze abesbatzekiko kontzertuak eta trukeak antolatzen ditu Giltzarrik, Lesakan, Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, halaber, Gaztela Leonen, Asturiasen, Katalunian eta Europako hainbat lekutan, errate baterako, Austrian eta Frantzian.

Irain Eskola Publikoa

Historia eta ezaugarriak: Irain eskola Publikoak 1980/1981 ikasturtean zabaldu zituen bere ateak. Garai hartan, herriko eskolara joaten ziren haurrak sakabanatuak ziren herrian barna zenbait egoitzatan, eta egoitza horietako batzuk oso egoera kaxkarrean ziren. Horregatik, aurrerapauso handia izan zen biztanleentzat haur guziak Irain eskolan elkartzea eta eskola komunitate propio bat osatzea.

Eskola A eredukoa zen, hau da, ikasgai guziak gaztelaniaz ematen ziren, baina, ondoko urteetan, euskara ikasgai gisa eskaintzen hasi zen. 1985/1986 ikasturtean, D ereduan matrikulatzeko aukera izan zuten herriko haurrek lehenengo aldiz eta, geroztik, eredu hori da eskaintzen den bakarra.

Ezaugarri nagusiak: Nahiz eta eskolak 400 ikasleentzako lekua izan, gaur egun, 138 daude eta 20 irakasle. Ikasleak mailaka banaturik daude, Haur eta Lehen Hezkuntzan (2 urtetik 12 urte bitarte eta 20 irakasle). Ikastetxearen mantentze lanez Herriko Etxea arduratzen da eta izendapena berriz eskualdekoa.

Zerbitzuak: garraioa, jangela, goizeko harrera,...

Irain guraso elkartea:

Lesakako Irain eskolako Guraso Elkartea 1972. urtean sortu zen. Gaur den egunean, familia guziak gara elkarteko bazkide eta hauek dira gure helburu nagusiak: eskolako familiei ahalik eta zerbitzu osatuenak eskaintzea eta gure herriko ekintzetan parte hartzea. Hainbat esparrutan lan egiten dugu urtean zehar:

- Eskolan gure elkartearen presentzia bermatu eta eskolako jardueretan gurasoen parte hartzea handitu.

- Goizeko harrera eta irail-ekaineko jantoki zerbitzua antolatu.
- Eskolaz kanpoko jarduerak bideratu.
- Familientzako hitzaldiak eta lantegiak antolatu.
- Eskolak dituen betebeharretan lagundu: irteerak, ekintza osagarriak...
- Herrian edo eskolan antolatzen diren hainbat ekitalditan parte hartu: eskolako azoka/feria eguna, Euskararen eguna, kabalgata, inauteriak, azken eguneko besta...

Izaera eta helburuak: Haur eta Lehen Hezkuntza eskaintzen duen kalitatezko eskola publikoa eta euskalduna da. Egungo eta etorkizunerako gizarteari aitzin egiteko baliabide berritzaileak eskainiz gure ikasleen hezkuntza integrala bermatzen duen eskola da.

Urteroko agenda/ekimenak:

Ikasturte hasierako irteera

Azoka eguna

Ipuin, komiki eta bertso lehiaketa

Euskararen eguna

Eguberrietako jaialdia

Bide hezkuntza

Zahar etxera bisita

Inauterietako jaialdiadia

Txangoak eta kanpaldiak

Emakumearen eguna

Liburuaren astea

Ikasturteko azken eguneko jaialdia

IRAIN ESKOLA PUBLIKOA:

Irain Eskola Publikoa, Irainbide 2, 31770 LESAKA.

Tfno: 948 63 80 06

e-posta: cplesaka@educacion.navarra.es

Led Silhouette

Led Silhouette Lesakan egoitza duen dantza garaikideko konpainia da, Jon Lopezek eta Martxel Rodriguezek sortu eta zuzendurikoa. Interprete gisa zenbait dantza konpainiatan proiektuka lanean segitzeaz gain, 2016an, etapa berria hasi genuen sortzaile gisa, dantza diziplina desberdinetan prestatutako artista gazte talde hau zuzenduz arte garaikidearen eraginpean. Mugimendu hizkuntza berriak ikertzen ditugu dantza garaikideari buruzko gure ikuspegi propioa garatu eta zabaltzeko.

2016an "Moira" gure lehenbiziko pieza estreinatu zenetik, zenbait egonaldi artistiko lortu ditugu, sorkuntza prozesuak lantzeko: "Sortutakoak" Gipuzkoako Dantzagunean, “Centro de Danza Canal - Residentes 2019" eta “Compañía Nacional de Danza”ren egoitzan, azken

biak Madrilen, eta "DNA Sorkuntza" eta "Aterpean" egonaldiak Lesakako Harriondoa Kultur Etxean. Egonaldi artistiko horietan sorturiko piezak Euskal Herrian, Espainiar Estatuan eta Europan barna erakusten ari gara pixkanaka.

Arteak jendartea eraldatzeko duen gaitasuna kontuan harturik, gure proiektuek jendarte-talde aunitzen parte hartzea eta ahalduntzea sustatzea dute helburu, komunitateen eta pertsonen arteko sare bat sortuz, eta, banakako sorkuntzaren barrenean, sorkuntza berri bakoitza norberaren bizipenetan oinarrituz.

Lanak:

- MOIRA (2016)
- CREEPY CRAWLY (2018)
- ERRATA NATURAL (2018)
- CONCAVO CONVEXO (2020)
- WILD STREET (2020)

LED SILHOUETTE DANCE COMPANY

Lesaka Trikitixa Taldea Elkartea

Historia eta ezaugarriak. Lesakan urteetan egon da trikitixa zaletasuna. 1992an, zaletasun hori kontuan hartuta eta Lesakan zenbait trikitizaleren ikasteko gogoa eta nahiaz oharturik, trikitixa eta pandero prestakuntzarekin hasi ginen. 1994an, Lesaka Trikitixa Taldea elkartea ofizialki sortu zen herriko zenbait trikitizaleren partaidetzarekin eta hainbat ikasleren gurasoen laguntzarekin.

Partaideak. Trikitixa kalejiretan parte hartzen duen jendearen adina: 5 urtetik gora, mugarik gabe.

Inauterietako kalejira, San Fermin bezperako kalejira eta Santa Zeziliako kontzertua izaten dira partaide aldetik kopurutsuenak; 80 trikitilari eta pandero-jotzaile inguru biltzen gara.

Gainontzeko ekimenak ez dira hain jendetsuak izaten, 20-30 pertsona inguru elkartzen baikara.

Partaideak, oro har, Lesakarrak izaten gara, baina Igantzitik, Arantzatik eta Etxalartik ere etortzen dira.

Entseguen maiztasuna. Ekitaldi motaren araberakoa izaten da. Kalejirak: talde osoa, entsegu pare bat. Kontzertuak: talde osoa, hiruzpalau entsegu. Txapelketak: bikoteka, entsegu kopurua beharraren araberakoa. Jaialdiak: taldeka, entsegu kopurua beharraren araberakoa.

Antolaketa/Prestakuntza. Prestakuntza saioak, ordubete ingurukoak izaten dira astean behin. Trikitixa: 3-4 ikaslek ikaskuntza zuzena jasotzen dute.

Ikasteko moduak: zenbakiz, solfeoz eta aitzinez aitzin. Panderoa: talde ttikitan eta aitzinez aitzin ikasten da.

Panderoaz gain, euskal kantagintza eta kriskitinak jotzen ere irirakasten dugu.

Irakasleak: azken urteetan, ikasle ohiak aritzen dira irakasle gisa eta horrela segitzea du helburu Lesakako Trikitixa Taldea Elkarteak.

Prestakuntza saio horiek Harriondoa Kultur etxean ematen ditugu.

IZAERA ETA HELBURUAK

- Euskal Herriko musika ahalik eta era zabalean eta osoenean irakastea.
- Trikitixaren bidez gure burua garatu eta sakontzea.
- Inguruko kultur elkarteekin batean, eskualdean euskal kultura bultzatzea.
- Musikaz disfrutatzea.
- Haurren eta helduen arteko sozializazioa eta harremanak sustatzea.
- Ikasturtean zehar ikasitakoa plazaratzea.

URTEROKO AGENDA/EKIMENAK

- Urtarrilak 5: Zaharren etxean + Frontoian
- Otsaila-martxoa: Inauteriak; kalejira Zako zahar ttikiekin
- Uztailak 6: San Ferminak; kalejira
- Azaroak 21: Santa Zeziliako kontzertuak
- Azaroa: Feria bezpera; kalejira
- Abenduak 6: San Nikolas: kalejira
- Abenduak 21: Gabonetako kontzertu-kalejira
- Abenduak 31: Urte Zahar Eguna; kalejira

Herritik kanpo (talde txikian): Arantzako trikitixa jaialdia, Arbizuko trikitixa jaialdia, Irungo euskal jira, Nafarroako trikitixa jaialdia, Eus-

kal Herriko trikitixa eguna, Euskal Herriko edozein herritako festetako jaialdiak.

Ekitaldi motak: kalejirak, kontzertuak, jaialdiak, trikitixa, txapelketak, ikastaro bereziak Euskal Herriko trikitilari eta pandero-jotzaile ezagunekin, hitzaldiak.

BERTZELAKOAK

Jantzia. Parteaideak, ekitaldi motaren arabera, modu batean edo bertzean janzten gara. Gehienetan, trikitixa taldeko kirol-jertse beltza, kamiseta gorria eta galtza bakeroak janzten ditugu. Kontzertuetarako, berriz, trikitixa taldeko kirol-jertse beltza eta galtza beltzak. Inauterietan, mairuz, eta Eguberrietan egiten diren ekitaldi guzietan, baserritarrez janzten gara.

Ekitaldiak. Gure Trikitixa elkarteak Baztan-Malerreka-Bidasoa aldeko trikitixa txapelketak antolatu ditu 15 urtez elkarren segidan, eskualdeko herri desberdinetan eta parte-hartzaile aunitzekin (Donezteb; Etxalar; Igantzi; Arantza; Lesaka...).

Estatu Batuetako Elkon (Nevada) parte hartu dugu, bi urtez, euskal jaietan.

Trikitixa jaialdietan parte hartu izan dugu eta parte hartzen segitzen dugu: Igantzi, Arantza, Arbizu...

Nafarroako Trikitixa Jaialdia; Irungo Euskal Jira; Aristerrazu;

Trikitixa txapelketei dagokienez, trikitixa elkarteko zenbait kidek Euskal Herrian antolatu diren hainbat txapelketatan parte hartu izan dugu:

Nafarroako trikitixa txapelketa

Baztan, Malerreka, Bidasoako trikitixa txapelketa

Zarautzeko Euskal jaietako trikitixa txapelketa Euskal Herriko Zeanuriko txapelketan, Larraulen, Anoetan, Getarian, Berastegin...

Txapelketa horietan elkarteko kideok irabazle suertatu gara behin baino gehiagotan.

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak antolatzen duen Maketa Lehiaketan ere parte hartu eta lehenengo hamar sailkatuetan suertatu dira gure elkarteko kideak. Ondorioz, Haziak I eta Haziak II diskoetan, beren abesti berriak grabatu dituzte.

Kolaboratzaile lanetan ere ibiltzen gara: dantza taldeekin, musika bandarekin, ikuskizun berezietan, ezkontzetan, antzezlanetan, zenbait musika talderekin...

Harremanetarako:
Jone Elgorriaga: 628 026 751 (trikitixa)
Estitxu Elgorriaga: 636 739 555 (panderoa)
Nekane Etxandi: 617 128 631 (trikitixa)
Helbide elektronikoa: lttelesaka@gmail. com

Lesakako Abesbatza

Historia eta ezaugarriak: 1982. urtean sortu zen, lehenagotik zegoen parrokiako abesbatzaren segida gisa. Orduz geroztik eta gelditu gabe, errepertorioa zabalduz joan da, eta, musika polifonikoaz gain, musika herrikoia gehitu dugu, euskarazkoa batez ere, baita bertze herrialde eta kultura batzuetakoa ere.

38 urte hauetan, Lesaka izena Euskal Herrian barna eraman dugu (Basauri, Gasteiz, Burlata, Azkaine, Hendaia, Cintruenigo, Iruñea, Aiegi, Miranda Arga, Izaba, Luzaide, Fuenmayor...). Hona hemen emanaldi aipagarrienak: Iruñeko Katedralekoa eta Gaiarre Antzokikoa; Miarritzeko Auditorioa ireki zenekoa; Aita Donostiaren omenez egindakoa, Musika Hamabostaldiak Donostian antolatu zuen hartan; Xabierko Auditoriokoa, Frantzisko Xabierkoa jaio zeneko V. mendeurrena zela eta; Irungo Amaia Kultur Etxekoa, Bidasoako Abesbatzen

Jaialdietan; Tafallan eta Lesakan Mendi Abesbatzarekin eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin egindako ekitaldiak, eta Nafarroako Organo Zikloan parte hartzea. Horietaz gain, bertze batzuk ere badira aipatzekoak, hala nola Cuencan, Errioxan, Burgosen, Kantabrian egindakoak.

Abesbatza misto amateurra gara eta osatzen dugun guziak Lesakako abeslari ez-profesionalak gara; 36 partaide ditugu eta bi laguntzaile instrumentista: organista bat, eta akordeoilaria eta piano jotzailea.

Gure errepertorioan, ahots mistokoak nahiz berdinekoak lantzen ditugu.

Normalean, astean behin edo bi aldiz egiten dira entseguak, Harriondoa Kultur Etxean, momentuko jardueren arabera (errepertorio berria ikasi, kontzertuak …).

Izaera eta helburuak: Uste dugu herriko bizimodu kulturaleko eta sozialeko partaide garela eta aktiboki hartzen dugu parte, Parrokian lagunduz (jaiak, ezkontzak, hiletak, …), ekitaldi herrikoietan eta Lesakako musika munduko bertze taldeekin batean antolatzen direnetan (urtero Santa Zezilia ospatzeko egiten diren kontzertuak eta Eguberrietako kalejirak, edo tarteka musika eskolako ikasleekin, bandarekin, akordeoilariekin … egin direnak).

Guretzat, abesbatza izateak erantzuten dio kantua maite duten hainbat eta hainbat lesakarren nahiari. Abesbatzak aukera ematen die lagunekin batean eta denentzat modu atseginean aritzeko. Gure ustez, Lesakan urte aunitzetan egindako lan eta tradizioari segitzea bertzerik ez da. Uste dugu lan sozial garrantzitsua dela gure herrirako.

Gure jardueren barrenean, beti saiatzen gara bertze abesbatzekin trukeak egiten; hala, Lesakara etortzen direlarik, gure zaleek ikusi, aditu eta ezagutu egiten dute bertze herrietako kultura, eta guk, hara joaten garelarik, gure lana eta Lesaka izena ezagutzera ematen ditugu.

Urte hauetan guzietan, bertzeak bertze, honako abesbatza hauek bisitatu ditugu eta gaituzte: Oñatikoa, Zumarragakoa, Aiegikoa, Iza-

bakoa, Iruñekoa eta Hendaiakoa.

Urtero prestatzen dugun egitarauan, jarduera desberdinak sartzen saiatzen gara, Lesakan bertan nahiz kanpoan.

Urteroko agenda/ekimenak:

- Urteberri eguneko meza
- Errege kabalkadan parte hartzea
- Errege eguneko meza San Martin elizan eta Andra Mari Egoitzan
- San Anton eguneko meza ermitan (azken bi meza horietan, ahal duten Abesbatzako kideek hartzen dute parte)
- Aste Santuko mezak (ortzegun, ortzirale eta larunbat santuak).
- Salbatore eguneko, Jaunartzeetako, Sendotzeetako mezak (hiru meza horietan, ahal duten Abesbatzako kideek hartzen dute parte)
- Besta Berriko meza
- San Fermin eguneko meza eta bezperak
- Jubilatuen eguneko meza (horretan, ahal duten Abesbatzako kideek hartzen dute parte)
- San Martin eguneko meza
- Santa Zezilia ospatzeko kontzertua, Lesakako bertze musika taldeekin batean
- Eguberrietako kalejirak, Lesakako bertze musika taldeekin batean
- Eguberri eguneko meza
- Bisita Andra Mari egoitzara, Eguberrietan
- Urte zahar eguneko kalejiran parte hartzea ("Dios te Salve")
- Hileta guzietan kantatzea

Urtero antolatzen dugu abesbatza baten kontzertua, Lesakan, eta Nafarroako Abesbatzen Federazioak antolatzen duen Nafarroako Abesbatzak programan hartzen dugu parte. Musika gure lurraldeko txoko guzietara eramatea da programa horren helburua, eta urtero aldatzen da kontzertua emateko tokia.

Gainera, orain dela urte batzuk arte, Nafarroako Gobernuak abenduaren 3an (Nafarroako Eguna) antolatzen dituen kontzertuetan hartzen genuen parte eta berriz parte hartzeko asmoa dugu.

Harremanetarako:

Korreo elektronikoa: lesakakoabesbatza@gmail.com
Web orria: https://lesakako-abesbatza.wixsite.com/lesaka2
Helbidea: Eltzetako Plaza, 5 – 1. C 31770 Lesaka

Edozein kontutarako hau da Gemma Mitxelenarekin harremanetan paratzeko telefonoa: 678 44 09 35.

Lesakako Musika Banda

Nafarroako bandarik zaharrena izaten ahal da Lesakakoa, Erriberri-koarekin batean, mende eta erdi baino gehiago pasatu delako 1857ko uztaileko arratsalde batean udalak Rafael Salcedo parrokiako organo jotzaileari musika eskola eta banda sortzeko enkargua egin ziotenetik. Eskatutakoa martxan paratu zuen Salcedok, eta herriko haurrak solfeoa eta instrumenturen bat dohainik ikasteko aukera izaten hasi ziren. Poliki-poliki, herriari prestakuntza musikala eskaini zitzaion, eta bandan islatu zen hori.

Salcedok, liskar batzuk tarteko, kargua utzi, eta Francisco Viela lesakarrak hartu zuen haren lekukoa 1866an; hala, organoa, musika eskola eta bandaren ardura hartu zituen bere gain. Viela 50 urtez behinik behin aritu zen bandako zuzendari lanetan.

Herri txikietan, liskarrak ugari izaten dira, eta 1895ean bandak izan zuen banaketa izaten ahal da horren lekuko, urte hartan herrian bi

musika talde baitziren: Udal Musika Banda eta Parrokiako Musika Banda. Bakoitzak funtzio desberdinak zituen. Halarik ere, egoera hark ez zuen denbora luze iraun; izan ere, Jose Pampurrio Etxartek, Viela ordezkatu zuen zuzendariak, bi bandak bateratzea lortu zuen XX. mende hasieran. Etxartek denbora guttiz eraman zuen gidaritza; 1916an, musika eskolako arduradun izendatu zuten, eta herriko bertze seme bat paratu bandako zuzendari: Candido Albistur.

Albistur zuzendaritza kontuetan ibilia zen lehenagotik, Doneztebeko eta Elizondoko bandak haren gidaritzapean izanak baitziren. Pieza aunitz idatzi zituen bere bandarako eta taldearen egoerari egokitzea tokatu zitzaion; izan ere, bandako kideetatik bortzek bertzerik ez baitzekiten partitura bat irakurtzen. 1931 bitarte aritu zen banda gidatzen.

Bautista Bergas arduratu zen Albisturren ondotik taldeaz, baina denbora laburrez, 1934an kargua uztera behartu baitzuten. Tirabira batzuk tarteko, banda entsegurik egin gabe ibili zen denbora batez, baina ez zuen inoiz hutsik egin igandeetan plazako kioskoan zuen hitzorduan. Kiosko hartan bertan hil zen Berges ordezkatu zuen Tomas Aguirre zuzendaria, 1939ko uztailaren 1ean, igande arratsaldeko kontzertua zuzentzen ari zelarik aplopexiak jota.

Epe motz batez, Luis Oronozek hartu zuen taldea aitzinera ateratzeko ardura, postua Guillermo Agarak bete zuen arte. Agarak 1965ean utzi zuen zuzendaritza bandaren garairik zailenaren hasieran. 1982ra arte, banda urteko konpromisoak betetzeko bakarrik elkartzen zen (inauteriak, San Ferminak, Aste Santuak…), aunitzetan errefortzuko musikariak kanpotik ekarriz. Urte hartan, Javier Igoak banda berrantolatzeko saiakera egin zuen, taldea bere gain hartu zuelarik. Igoarekin, Lesakako bandak berriro ere martxa hartu zuen eta garai onak bizi izan zituen 1998an kargua utzi zuen arte.

Ordutik aitzinera, Mikel Iriarte izan dugu bandako zuzendari; haren zuzendaritzapean, nabarmen egin dugu goiti, eta proiektu desberdin aunitz atera ditugu aitzinera, arrakasta handi samarrarekin.

Gaur egun, 50 musikari inguruz osatua dago banda, lesakarrak gehienak, baina baita inguruko herrietakoak ere, adin aunitzetakoak. Musika tresna ugarik parte hartzen dute bandan: metalezko eta zurezko haize-instrumentuak eta perkusioko musika tresnak. Garrantzitsua da bandak musikari gazteei ematen dien aukera ikasi duten instrumentua taldean garatzeko, kanpoan beren artista sena agertzeko, baita talde giroan ongi pasatzeko ere.

Herrian parte hartuz musikarekin disfrutatzea da gure helburu nagusia; hala, urtean zehar, zenbait ekitalditan ekarpen musikala egiten dugu. Urte hasieran, erregeen kabalgatan jotzen dugu, ilbeltzaren 5ean. Inauterietako igandean ere, Zako zaharrekin batean jotzen ibiltzen gara, baita inauterietako astelehenean karrikak alaitzen ere. Aste Santuko ortziralean, prozesioan parte hartzen dugu. Udaberriaren etorrerarekin batean, kontzertu bat eman, eta korpus eguneko prozesioan ere parte hartzen dugu. San Ferminak, berriz, uztailaren 6ko tanborradarekin hasten ditugu; uztailaren 7an, goiz eta arratsaldez ibiltzen gara herriko ekitaldiak musikatuz, eta, uztailaren 10ean, Txakaingo jaitsieran jotzen dugu. Santa Zezilia eguna ospatzeko ere, herria musikaz betetzeko kalejira edo kontzerturen bat ematen dugu, baita eguberriak ailegatzen direlarik ere. Eta, urtea akabatzeko, Olentzero egunean, ilunabarrean, karrikak alaitzen ibiltzen gara.

Horrez gain, urtean zehar, bertze mota batzuetako kontzertu bereziak ere ematen ditugu, bertzeak bertze: Airband, munduko musika eta janariak biltzen dituen kontzertua; Disneyren musika biltzen duen kontzertua; Rockband, rock estiloko musika biltzen duen kontzertua; Lesakantuz, euskal abestiak biltzen dituen kontzertua; Korrontzi taldearekin batean, bai Lesakan bai Zugarramurdiko kobazuloetan jotzen aritu gara, eta Pepito Yanci lesakarraren bizia eta musika biltzen duen kontzertua, hori Lesakan, Iruñeko Gayarre antzokian eta Donostiako Victoria Eugenia antzokian eman dugu. Horrez gain, Lesakako abestiak biltzen dituen musika CD bat grabatu dugu.

Harremanetan paratzeko:
Facebook: Lesakako Musika Banda
Helbide elektronikoa: bandalesaka@gmail.com

Lesakako Soinulari Taldea

1983an sortu zen, zortzi akordeoilarirekin, eta, orkestra gisa, urtean emanaldi bat bakarra ematen genuen, lehenbiziko urte haietan, "Santa Zezilia" ospatuz. Ondorengo urteetan, taldea handituz joan zen eta seriotasun handiagoarekin hasi ginen entseatzen. Publizitatea ere egin genuen, eta bertze herrietatik deitzen hasi ziren. Diru sarrera haiek, aunitz ez bazen ere, hagitz ongi etortzen zitzaizkigun. Taldea 20 bat lagunekin osatu zelarik, pentsatu genuen lehiaketetara aurkezten hastea, eta Montpellierkoa izan zen gure lehenbiziko lehiaketa. Taldeak lehiaketetan lortutako sariak garrantzitsuak izan ziren kontzertuak eta emanaldiak lortu ahal izateko.

Lehiaketetako ibilbidea:

1993 *-1. saria "Excellence" mailan. Montpellieren.
1993 *-1. saria "Excellence" mailan. Parisen.
1994 *-1. saria "Honneur" mailan. Semeac-en.
1994 *-1. saria "Honneur" mailan. Parisen.
1995 *-5. saria Kastelfidardoko lehiaketa internazionalean (Italia).
(1. eta 2. saria ez ziren eman.)
2001 *-4. saria Kantabriako lehiaketa internazionalean.

Herri aunitzetan ere eman ditugu kontzertuak, errate baterako: Bortzirietako herri guzietan, Elizondon, Donezteben, Donostian, Trintxerpen, Irunen, Argedasen, Eugin, Vianan, Aran bailarako Les herrian (Lleida)...

25. urteurrena ospatu genuen 2008ko maiatzaren 10ean, Lesakan kontzertu bat emanez, eta, maiatzaren 31n, akordeoi emanaldi handi batekin, gaur egungo hiru akordeoilari hoberenetarikoekin: ENRIKE ZELAIA, JOXAN GOIKOETXEA eta haren taldea, eta IÑAKI DIEGUEZ eta haren taldea. Urte horretan, uztailaren 6ko altxaferoa botatzeko aukera eman ziguten herrian, eta ilusio handiz hartu genuen gonbidapena

Gaur den egunean, 13 bat lagun gaude taldean, eta astero biltzen gara entsegua egitera. Urtean zehar, kontzertu bat ematen dugu maiatza-ekaina aldera, eta, horretaz gain, San Antongo bezperetako kalejiran, San Ferminetan, Santa Zezilian eta urtero Nafarroan egiten diren akordeoi topaketetan hartzen dugu parte, eta, normalean, jende gehiago biltzen gara horietan parte hartzera, ez bakarrik orain gauden taldekideak, lehengo partekideak ere bai; gogotik bizitzen dugu akordeoiarekiko grina eta ez dugu ohitura polit horiek galtzea nahi; horregatik, soinua ahal dugun leku guzietara zabaltzea dugu helburu, baita guk eta jendeak gozatzea ere.

Harremanetarako:

Gure posta elektronikoa: lesakakosoinulariak@gmail.com

Lesakako Txistulari Taldea

Historia eta ezaugarriak: XX. mendetik izan dira Txistulari Bandak herrian, bizpahiru partidez osaturikoak, baina erraten ahal dugu gaur den egungo formatuan ezagutzen dugun Lesakako Txistulari Taldea 1972an sortu zela, Santiago Irigoien orduko Txistulari Bandako zuzendari eta txistu irakasleak ikasle zituen hamabi neska-mutil taldera gehitu zituelarik. Ordutik, Santiago Irigoien bera aritu zen txistua irakasten eta taldea zuzentzen.

1996an, Santiago Irigoienek erreleboa pasatu zion Gaizka Sarasolari. Orduz gero, bera ari da taldearen zuzendaritza lanean. 2000. urtetik aitzinera, Lesakako Txistulari Taldea izena hartu zuen. Txistua jotzeko eta taldean parte hartzeko nahia eta interesa azaltzen duten pertsona guziak izaten ahal dira taldekide. Gaur egun, 30 txistulari inguruk parte hartzen dugu taldean, eta larunbat goizetan entseatzen dugu normalean.

Izaera eta helburuak: Txistuaren ohiturazko musika eta jarduerak zaindu eta hedatzeaz gain, txisturako musika eta jarduera berriak jorratzea dugu helburu. Horretarako, ohiturazko emanaldi eta bestetan parte hartzeaz gain, emanaldi bereziak eman, eta, ahal dela, bertzelako kultur ekitaldiak antolatzen saiatzen gara.

Ekimenak

Karrikabueltak: urteroko ekimenen artean, Mendekoste igandetik San Ferminetara, "Karrikabueltak" egiten dira igandero. XIX. mendearen bukaera arte, "Mairuen eta kristauen" festa bat ospatzen omen zen Lesakan, San Juanetan. Besta horretan, San Juan eguna baino igande batzuk lehenago, urte horretarako izendatutako "errege" mairu eta kristauen segizioek kalejira moduko bat egiten omen zuten musikariek lagundurik.

Ohitura horren oinordetako hartzen ahal ditugu egungo "Karrikabueltak". Urtero jo beharreko doinuak aldatzen ditugu. Bi soinu bakarra errepikatzen dira. San Juan igandez, "Tantirumairu" doinua jotzen da beti. Eta San Ferminen aitzineko igandean, gero ezpata dantzariekin jo ohi den zortzikoa.

Emanaldi bereziak: Tradizioa indartu, eta berrikuntza sustatzeko ahalegin horretan, tarteka, emanaldi bereziak ematen saiatzen gara.

Emanaldirako aukeratutako espazioan, kontzertuaren gai eta kontzeptuetan edo erabilitako soinu tresnetan egoten ahal dira berezitasun horiek. Emanaldi berezi horien adibide izaten ahal dira Musika Hamabostaldian Xabier Erkiziarekin Agiñan egindako "Hutsaren borobila" emanaldia, Pedro Lantzekin batean haren burdindegian buruturikoa, edo "labadero"an emandakoa.

Harremanetarako:
lesakakotxistulariak@gmail.com

Lesakako txistulari
TALDEA

Mairu Antzerki Tailerra

1998ko udazkenean, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak "Antzerki eta gorputz adierazpena" izeneko ikastaroa antolatu zuen Lesakan, batez ere bertako gazteengan pentsatuta. Ikastaro horretatik sortu zen gerora Mairu Antzerki Tailerra. Ikastaro horretan elkartutako zenbait lagunek, gerora hurbildutako bertzeren batekin, 2000. urtean kaleratu zuten Mairu Antzerki Tailerraren lehenbiziko lana: "Trizikloa".

Sorreratik, hiru helburu nagusi izan ditugu taldean. Euskaraz antzerkia egin, antzerkiaren alor desberdinetan sakondu, eta inguruan antzerki adierazpenen presentzia hedatu eta sustatu.

Noizean behin, ikastaroak antolatu eta eman izan ditugu, baina, nagusiki, bi izan dira orain artean jorratu ditugun ildoak. Antzezlanak sortu eta plazaratzea, alde batetik, eta antzerki emanaldiak antolatzea, bertzetik. Bigarren hori indartzeko, "Keinu-Leihoak" deituriko antzerki jardunaldiak antolatzen hasi ginen 2005ean.

Keinu-leihoak: 2005ean antolatu genuen lehendabiziko aldiz. Ordutik, urtero antolatu dugu. Talde ez-profesionalei beren lanak aurkezteko plaza bat eskaini izan diegu, baina baita talde profesionalei ere. Formatu ttiki eta berezietako antzezlanak gonbidatu izan ditugu normalean, baina ateri zabaleko muntaia handiagoak ere bai. "Keinu--Leihoetan", antzerkiaz gain, poesia errezitaldiak, musikak, argazkigintzak, dantzak eta bideo proiekzioek ere izan dute lekurik. Udalaren laguntzaz gain, eskertzekoa izan da bereziki Arrano Elkarteak emandako babesa.

Sormen lanak:

TRIZIKLOA (2000)
Testua : Fernando Arrabal
Zuzendaritza : Ramon Albistur
Aktoreak : Gotzone Rekondo, Maite Mendegia, Juanen Saralegi, Gaizka Sarasola, Ane Otxandorena eta Andoni Sarasola.

ZUGARRAMURDIKO SORGINAK (2001)
Testua : Fernando Domenech
Zuzendaritza : Ramon Albistur

KRABELINAK UHARTEETAN (2002)
Testua: MAIRU ANTZERKI TAILERRA
Zuzendaritza: Ramon Albistur
Aktoreak: Juanen Saralegi, Gotzone Rekondo, Arantza Garmendia, Ritxi Abril, Gaizka Sarasola, Maite Mendegia eta Josune Etxepare
EURITAKO XORIA (2003)
Testua: Afrikar ipuina Zuzendaritza : Ramon Albistur
Aktore-Musikariak: Maite Mendegia eta Gaizka Sarasola

ERREGEA, SOLDADUA ETA BUFOIA (2004)
Testua: Gaizka Sarasola Zuzendaritza: Ramon Albistur
Aktoreak: Ritxi Abril, Gaizka Sarasola eta Juanen Saralegi

TALAKA (2015)
Testua: Gaizka Sarasola
Zuzendaritza: Gaizka Sarasola eta Manex Fusch
Aktorea: Gaizka Sarasola

BERTSO ATABIKOAK (2015)
Testua: Gaizka Sarasola
Zuzendaritza: Gaizka Sarasola
Mairu Antzerki Tailerra eta Tantirumairu Euskal Folklore Taldea elkarlanean

TXORIAK ETA ZAURIAK (2018)
Testua: Gaizka Sarasola
Zuzendaritza : Gaizka Sarasola eta Manex Fusch
Aktoreak : Juanen Saralegi, Ritxi Abril, Ainara Ribera, Gaizka Sarasola, Josune Etxepare eta Gotzone Rekondo.

ILUNTZEN (2021)
Testua: Gaizka Sarasola
Zuzendaritza : Mairu Antzerki Tailerra
Aktoreak : Juanen Saralegi, Ritxi Abril, Gaizka Sarasola, Josune Etxepare eta Iban Garro.

Eskualdeaz haratago, Euskal Herriko zenbait txoko eta aretotan erakutsi ahal izan ditugu gure lanak. Emanaldi horien bidez, neurri batean, gure proiektuak eta "Keinu-Leihoak" jardunaldiak aitzinera atera ahal izan ditugu. Gaur egun ere, sormen lan berri batean murgildurik gabiltza.

Bukatzeko, ezin dugu aipatu gabe utzi gure proiektuak gauzatzeko, inguruko lagun aunitzen kolaborazioa ezinbertzekoa izan zaigula. Haiek ere, neurri batean, mairutarrak dira, gu bezala. Gure eskerrik beroenak denei.

MAIRU
antzerki tailerra

Lesakako Jubilatuen eta Pentsionisten Elkartea

Lesakako jubilatuen eta pentsionisten elkartea 1988an sortu zen.

Sortzaileak hauexek izan ziren: José María Eneterreaga Esparza, Justo Urquijo Vizcarguenaga, María Concepción Marichalar, Guillermo Agara Maritorena eta María Luisa Pellejero Belio.

Gaur egun, 360 bazkide ditu, baina, urtero, baja gehiago ditugu izen-emateak baino (jendearen adina dela-eta).

Bazkideez osaturiko batzorde batek eramaten du gestioa eta 7 lagunek osatzen dute. Hilero elkartzen gara, bakoitzak hilabete horretan zehar egin dituen lanak eta antolatze-aferak han aztertzeko. Batzorde hori 2 urtetik berritzeko aukera badago, baina une honetan ez dugu horretarako jenderik aurkitzen.

Agenda polit xamarra dugu, kulturaren alorrean, eta zenbait besta ere antolatzen ditugu. Hona jardueretako batzuk: gimnasia-yoga, memoriaren tailerra, musikoterapia, margoa, ttikitxoentzako margo tailerra eta ikastaroak, errate baterako, mugikorra nola erabili, adin bateko

jendearentzat ez baita erraza. Urtero, irteera batzuk ere egiten ditugu: kanpoan eguna pasa, bisita kulturalen bat antolatu, ederki bazkaldu eta etxera bueltatu.

Horrez gain, urtero saiatzen gara hitzaldiren bat ere antolatzen, bertzeak bertze, honelakoak egin izan ditugu: heriotza duina, testamentu bitala, elikadura eta kiropraktika. Gure elkartea osatzen duen jendearen gustuko gaiak izaten daitezela saiatzen gera. Iduritzen zaigu jendea gustura dagoela antolatutako gauzekin.

Duela 2 urtetatik hona, gainera, Doneztebeko Arkupe elkartearekin gabiltza harremanetan, baita Bortzirietako bertze jubilatuen elkarteekin ere. Arkupeak aukera eman digu gauza gehiago antolatzeko, eta, diru aldetik, adibidez, herriko kiroldegian antolatutako jardueretan parte hartzen duten bazkideei, ordaintzerakoan, deskontu dexente egiten zaizkie pilatesen, aquagymen, spinningean eta igeriketan.

Horregatik guziagatik, gure adinaz hurbil bazara, eta oraindik bazkide ez bazara, animatu nahi zaitugu guregana etortzera. Denon artean, ideia eta ikuspuntu berriak sortzen ahal baititugu.

Ondotik, 2020 agenda erantsi dugu gure jardueren erakusgarri.

2020. Urteko kirol eta kultura jarduerak:

- Podologia zerbitzua hilabetean 2 egun
- Gimnasia astelehena eta ortzeguna
- Memoria lantzeko tailerra, pintura
- Musikoterapia tailerra
- XXVIII. batzar orokorra
- Inauterietako bazkaria
- Aita eta Aitatxi eguneko bazkaria
- Andra Mari Zaharren Egoitzara bisita
- Ibilaldi arautua luncha eta sariak
- Ama eta Amatxien eguneko bazkaria
- Tuterara bidaia
- Firla, toka eta igel jokoaren txapelketak sariak
- Donibane Lohitzunera bidaia
- Mendi taldea San Juan Xarrera
- Autobusez San Juan Xarrera
- Nafarroako jotarien jaialdia
- Ezkonduen bazkaria
- Elkartasun bazkaria
- Ordiziako feriara bidaia
- Santanderrera bidaia
- Elkarte eguna, musika eta opariak
- Ferietako bazkaria
- Gaztaina jatea
- Eguberrietako bazkaria

Harremanetarako:

María José Arakues 606882545 pottoka69@yahoo.es

Tantirumairu Euskal Folklore Taldea

Historia: Tantirumairu Euskal Folklore Taldea, Lesakako Ikastolako guraso talde batek sortu zuen 1980. urtean.

Euskal Herriaren historia hurbila zein izan zen kontutan hartuz, guraso hauek gure herriko eta oro har Euskal Herri guziko dantza tradizionalak eta ohiturak ikasi eta mantentzeko helburuarekin sortu zen taldea.

Hasieran, 5 eta 14 urte bitarteko haurrei zuzendua izan zen, eskolaz kanpoko jarduera gisa bertako dantzak ikasteko asmoz. Baina 1990. urtetik aitzin, adin mugarik gabe zabaldu zen dantza ikasteko eskaintza eta honela, helduen taldea sortu zen.

Zail da konprenitzen ikuskizuna, Aginan.

Partaide kopurua: Gaur egun, 5 urtetik 35 urte bitarteko 120 dantzari daude taldean. Dantza hauek burutzerako garaian, ikuskizunetan musikari anitzen laguntza izaten dugu.

Izaera: Urteetan egindako lanari esker, egun Euskal Herriko zazpi lurraldeetako datzak ikasi eta dantzatzen ditugula erran daiteke. Honez gain, euskal dantzen sustrai eta oinarriak kontutan hartuz, bertzelako koreografia berriak ere dantzatzen ditugu, eta honez gain, herriko Mairu Antzerki Tailerrarekin elkarlanean ikuskizun bereziak sortu izan ditugu.

Urteroko ekitaldiak: Urtean zehar hainbat ekitalditan hartzen dugu parte: Apirilean *"Tantirudantza"* eguna antolatzen dugu, bertze herrietako dantzariak gure herrira gonbidatuz eta hauekin batera dantza saioa eskainiz herriko Plaza Zaharrean. Gainera, gure taldeko haurrek *zubigainekoa* eskaintzen dute, etortzen diren gonbidatuek Lesakako ohiturazko datza hau zuzenean ikusi dezaten.

Zubigainekoa dantzatzen.

Tantirudantza eguneko emanaldia Plaza Zaharrean.

Uztailaren 6an, herriko besten bezpera egunean, urteko emanaldi nagusiena eskaintzen dugu herriko pilota lekuan, eta bertan talde guztiek hartzen dute parte.

Uztailaren 6ko emanaldia.

Herritik kanpo, haurrek urtero irteeraren bat egiten dute Euskal Herriko bertze *Dantzari Ttiki* egunen batera eta helduak atzerrira joan izan dira emanaldiak eskaintzera, hala nola; Galizia, Huesca, Tarragona, Bretainia, Frantzia, Mexiko…

Taldeko kideak, Zumaian egindako *Dantzari Ttikian*.

Aipatu, "Euskal Dantzarien Biltzarreko" kide garela eta Nafarroako Gobernuak antolaturiko udaberri eta udazken zikloetan dantzatu izan dugula.

Harremanetarako: tantirudantza@hotmail.com

Tantirumairu Kultur Elkartea

TANTIRUMAIRU KULTUR ELKARTEAren sorrera Euskal Herriak frankismoaren azken urteetan bizi zuen giro politiko eta kulturalean kokatu beharra dago. Garai hartan, euskal kontzientziaren berreskurapena kulturaren, hizkuntzaren eta hezkuntzaren inguruan murgiltzen zen bereziki. Hala, ikastolak sortzen hasi ziren Euskal Herria osoan barna; gau-eskolak, kultur asteak, kontzertuak... nonnahi antolatzen ziren.

Lesakan, mugimendu horren inguruan, bereziki gazteez osatutako herriko talde koxkor bat bildu zen. Beren asmoak aitzinera ateratzeko, TANTIRUMAIRU KULTUR ELKARTEA sortu zuten.

Estatutuen sarreran aipatzen da elkartearen xedea:

Elkartea irabazi-asmorik gabeko erakunde kultural gisa sortu da 1.4. paragrafoan aipatutako herrien zerbitzura, eta ez du jarduera politikorik eginen. Herri horien kultura-sustapenaren alde eginen du honako jarduera hauen bidez:

a) Euskara eta euskal kultura sustatzeko eta kulturaren munduaren eremua hobeki ulertzeko mota guzietako jarduerak antolatzea (solasaldiak, ikastaroak, zinema-forumak, jaialdiak eta horrelakoak).

b) Haurrentzako zein helduentzako ikastetxe elebidunak sustatu, sortu edo/eta kudeatzea.

c) Bere lurralde-eremuan egiten diren bertze kultur jarduerekin batean koordinatzea.

d) Familia immigranteei arreta ematea, hemengo kulturan (hizkuntzan, ohituretan, folklorean eta horrelakoetan) aiseago integratzen laguntzeko.

- Horrela sortu zen **Tantirumairu ikastola** 1974. urtean, euskara eta euskal kultura bermatuko zituen hezkuntza eredua eskaintzen zuen ikastetxea. Orduko egitasmoetatik, errealitatean gauzatu zen proiektu indartsuena izan da. Urteetan zehar, ikastolak, hezkuntza erakunde gisa duen nortasunari segituz, bere bilakaera propioa eraman du.
- Ikastola guzientzat irekia egon da beti, jatorri euskalduna zein kanpotarra duen edozein familiarentzat. Familia immigranteei arreta berezia ematen die gure kulturan integratzen laguntzeko.
- Helduentzako euskalduntze eta alfabetatzerako ikastaroak AEK-k hasieran eta geroago IKA erakundeak hartu zituen beren gain.
- Ikastola barrenean Otxogorrienea Guraso Elkartea sortu zelarik, berak hartu zituen bere gain kulturgintzari dagozkion egitekoak eta, urtez urte, hainbat kultur ekimen eramaten ditu aitzinera.

Santa Ageda.

Urteroko agenda/ekimenak:

- **Olentzero eguneko kalejira:** Eguberri bezperako arratsaldean, txistu doinuaren laguntzaz, haurrak, familiak eta irakasleak kalejiran ibiltzen gara Eguberrietako abestiak kantatuz.
- **Santa Ageda bezpera**n kalejiran ateratzen gara makilekin lurra kolpatuz. Zahar Etxearen egoitzan, saio berezia egiten dugu hangoentzat.
- **Inauteriak:** gurasoek gai jakin bati lotutako orga apaintzen dute Inauteri asteleheneko ohiturari segituz. Herriko bertze orgekin bat eginez, haurrak eta gurasoak Inauterietako giroan murgiltzen dira.
- **Hitzaldiak:** Guraso Eskolaren barrenean haurren heziketan momentuan momentuko gai interesgarriak lantzeko, hainbat hitzaldi antolatzen ditugu.
- **Txoko Txiki ipuin lehiaketa:** ikasturte bukaera aldera, herriko haur guzientzat antolatzen dugu lehiaketa hori. Sari banaketako jaialditxoan, Bertso Eskolan aritzen diren ikastolako ikasleek bertso ikuskizuna egiten dute. Gaurdaino, 36 edizio antolatu dira.
- **Piper Gorri aldizkaria:** Txoko Txiki lehiaketan saritutako ipuin eta ilustrazioak argitaratzen ditugu han, baita ikasleek urtean zehar egindako hainbat lan ere. Piper Gorri ere 36 aldiz argitaratu da.
- **Zinema euskaraz:** Udalarekin eta Irain Eskolarekin batean, hilabetean behin euskarazko zinema antolatzen dugu Kultur Etxean.
- Tantirumairu dantza taldea ikastolan sortu zen haurrei euskal dantzak irakasteko asmoz. Gerora Tantirudantza Euskal Folklore Talde bilakatu zen taldearen aitzindari izan zen.

Harremanetarako:
Helbide elektronikoa: tantirumairu@ikastola.eus
Telefono zenbakia: 948 637 308/ 636 865 399

LUR GALLASTEGI idazlea ikastolan

Piper Gorri aldizkaria.

Basoa Oinez 2017

Txamukos Mariatxia

Txamukos Mariatxia musika mexikar tradizionala jotzen duen taldea gara, non gure lurraldeko ikuspuntu batetik interpretatu ohi ditugun gure errepertorioko kantak, abesti batzuei euskarazko letrak paratuz. Laburbilduz, mariatxi euskalduna gara..

Gure errepertorioan, baditugu hainbat genero eta erritmoko abestiak, non bereziki dantza egiteko abestiak sartu ohi ditugun (rantxerak, balsak, huapangoak, …), baina jarrita entzun eta gozatzeko abesti berezi eta famatu aunitz jotzen ditugu ere, entzuleak dantza egiteaz gain musikaz beraz ere goza dezan.

Txamukosen sorrera 2014ko udan kokatu ohi dugu; orduan, taldeko lehen formazioko musikari pare bati gure zonaldean oinarrituriko mariatxi bat sortzea bururatu zitzaien, eta, udazken horretan, lehen

entseguak antolatu ziren. Proiektua aintzinera joaten hasi zen, eta hilabete batzuk geroago, 2015eko Otsailaren 7an, hain zuzen, lehen emanaldia izan genuen Arantzako ihauterietan ostatuz ostatu eginiko kontzertu formatuan.

Hemendik aintzinera, agertokietara igotzen hasi ginen eta kontzertu aunitz ematen hasi ginen, Euskal Herriko hainbat lekuetara eramanik gure musika. Honen ondorioz, 2016 negu/udaberrian gure lehen grabaketa etorri zen, *Nos Vemos en el Camino/Bidean Topatuko Gara* izenarekin. Hor, gure errepertorioko kanta aunitz grabatu genituen, eta, aurkezpen gisa, gure Lesakako Txokobiko auditorioan antzerki musikatu baten bitartez kaleratu zen gure lehen CD hura.

Halaber, uda hortan gure musika eta errepertorio landu eta berrituarekin, Euskal Herriko hainbat herritan ibili ginen jotzen, eta, hurrengo urteko negu/udaberrian, hurrengo grabaketa etorri zen, *Txamukos* izanburuarekin; hala, oraingoz dugun diskografia osatu genuen, beheko irudian ikusten ahal den bezala.

Azken diska hura antzerki musikatuarekin aurkeztuta ere, hurrengo hilabete eta urtean zehar, kontzertu eta emanaldiak ematera bideratu ginen, betiere gure errepertorioa areagotuz, estilo ezberdinak landuz eta gure esentzia euskalduna mantenduz. Bide honetan, partaide berriak izan ditugu, eta bakoitzak bere estilo propioa gehitu dio taldeari eta Txamukosen musika aberastu.

2020an, hirugarren CD baten grabaketarekin hasi nahi izan genuen, baina denontzat ezaguna den egoerak ez zigun utzi ez proiektu hura aintzinera eramaten, ez emanaldirik ematen. Hala eta guztiz ere, 2021 hau indarberriturik eta ilusio osoz hasi dugu, *Unidos por la Musica Ranchera* proiektuan parte hartuz, eta, bertze hainbertze proiekturekin, buruan ahalik eta azkarren oholtza gainera bueltatzea, edozein entzulek gure musika mexikarraz gozatzen segi dezan.

Partaideak: Karlos Semper, Beñat Mitxelena, Xabier Arriola, Mikel Iriarte, Ruben Caballero, Maria Soriazu eta Idoia Uralde.
Partaide ohiak: Egoitz Telletxea, Jon Koldo Arburua, Fernando Otano, Joseba Sansebastian, Joxerra Mitxelena, Julen Suarez, Andoni Mitxelena.

HuriH

Bat, bi… Hurih!!!

Ezin dugu gure taldearen sorrera zehaztu. Urteak pasa ahala poliki-poliki sortuz eta garatuz joan den gure arteko zerbait izan delako.

Prozesuak gu bion bizi ibilbide pertsonala islatzen du.

Ttikitatik aritu gara gitarraren inguruan kantatzen eta dantzatzen. Nerabezaroan, Lesakako Gazte Asanbladak antolatutako bazkarietan jotzen hasi ginen, kantu herrikoiak eta ezagunak ziren bertze hainbertze kantu.

Herriko hainbat ekimenetan hartzen genuen parte: gazte egunak, Sanferminak, herri bazkariak, Zarandiako bestak … etab.

Musika gogoz, 2010ean, "Eutsi " taldea sortu genuen, eta kantu herrikoien bertsioak eta Punk musika eskaintzen genituen. Bateria eta Baxua gehitu genituen taldera.

Formatu berri horrekin, inguruko herrietako bestetan jotzen hasi ginen. Arratsaldez, kantu herrikoiak, eta arratsez, Punk bertsioak. Izena ere aldatu genuen: Etnia, orduko hartan.

Urte batzuk geldirik egon ondoren, bidaiak tarteko, berriz elkartu ginen eta estiloa pixka bat aldatu.

2015ean, joera latinoa gureganatuz, gazte bazkariak urtebetetzeekin eta urrezko ezteiekin ordezkatu genituen. Urteak eman genituen gureak ez ziren kantuekin giroa animatzen eta eskatzen zigutenera egokitu izan gara beti: orain bazkariak, orain urtebetetzeak. Mexikar serenata konplexua izaten hasi ginen arte.

Gure kantuak sortzen hasi ginen orain dela sei bat urte eta musika gure ezinegon eta gatazken espresio modu bat bezala ulertzen hasi ginen, gureagoa bihurtuz egiten genuena.

Kale giroan izan dugu ibilbide handiena, gehien aberastu diguna. Barra ertzean (alde batean zein bertzean) bizitako momentuak azpimarratuko nituzke bilakaera honetan, sormen eremu bihurtu zirelarik.

Erlazio mota desberdinak sortzen hasi ginen, musika eta poesia munduan gero eta gehiago murgiltzera eraman zigutenak. Horrela sortu genuen gaur egiten duguna.

Gure kantuak aberasten joan dira jende desberdinen ekarpenez eta gutti bada ere beti izan ditugu kontzertuak han edo hemen.

Gure egonkortasun faltak ez digu deus solidoa sortzen utzi baina ez diogu inoiz sortzeari utzi. Sormena izan da inora ailegatzeko helbururik gabe egindako bidea.

2019an egindako guztiari forma ematea erabaki genuen eta diska grabatzen hasi ginen, orain bizi dugun egoerak geldiarazi zigun arte, lana erdizka utziz.

Orain, proiektu berri bat dugu, talde handitu dugu, jantzi, apaindu, herriko bertze musikari batzuen laguntzaz. Hasiera honek motibatzen gaitu eta diska bukatzea dugu hurrengo helburua, orain artekoa nonbait gelditu dadin.

Hau izan da orain arteko bidea, aldakorra eta zabala. Aurrerantzean, ikusiko da bukatzen dugun edo ez hasitakoa, jarraitzen dugun edo ez hasitakoarekin.

Dena dela ere aurrera pausu bat izango delakoan.

Edo ez.

Harremanetarako kontaktua: 619 96 60 66 / 664 35 75 54

Egilea:

Laguntzailea:

LESAKAKO UDALA